

Prentsaitzinekoa
asteazkenean, maiatzaren 15ean, Biarritzen

MARCHE
POUR LA
JUSTICE CLIMATIQUE
SAMEDI 25 MAI - 15H A BAYONNE
Départ devant le tribunal

JUSTIZIA KLIMATIKOAREN
MARTXA
MAIATZAREN 25 LARUNBATEZ
ARR. 3ETAN BAIONAN
Auzitegiaren aitzinean



Bizi, 22, Cordeliers Karrika 22 64 100 Bayonne

Tlfnoa: 05 59 25 65 52 / Info@bizimugi.eu www.bizimugi.eu

Klimaren arriskuaren aitzinean, Biarritzek bere ardurak bazterrera uzten ditu:

Gure iduriko, Victoria Erreginaren etorbide enblematikoaren erreberritzea egiazko eskandalua da. Mugikortasunari dagokionaz, Biarritzeko hiriak agerian emaiten du bere ikusmolde zaharkitu eta berekoia.

«*Dena autoz*» garraibidearekin tematuz, klima larrialdiaren beharrak eta kutsadura atmosferikoak eragindako osasun arazoak gutietsiz, Biarritz mugikortasun goxo eta delako BHNS-en edo mail handiko zerbitzudun autobusen sailan txarrena da. «*Génération écologie*» alderdiko kide ohi batek kudeatzen duen Biarritze hirian, autobusendako bakarrik den bide berezia zati biziki ttipi batetara mugatua da. Horrek Tram'bus proiektuari kalteak ekartzen dizkio, jakinez proiektu hau Biarritzeko hiriaren erdialderaino joaiteko diruztatua izan dela.

Alta berriki eta osoki erreberritua izan den Victoria Erreginaren etorbidean, autobusarendako bide berezi edo propio baten eskasa, Hôtel du Palais Jauregi Hotelaren heinean tindatua izan den zatia izan ezik, nabari da.

Bide honek jarraitzen du «*Dena autoz*» lehentasunari erantzuten, eta bertan, autobusak emeki joan beharko dira, bereziki udan, blokatu egonez auto trafikoarengatik. Azkenik, bizikletez ibiltzeko bide hau lehen bezain arriskutsua eta desatsegina gelditzen da.

Nahasmendu klimatikoaren kontrako borrokan, dimisio politiko bat baino gehiago da. Zeren Victoria Erreginaren etorbidearen erreberritzea Tram'bus xedearantzako aitzinikusia zen diruarekin eginga izan da eta horrek egiazko arazo demokratiko eta etikoa pausatzen du.

Hemen, ingurumeneko Grenelle funtsak desbideratzen dira:

Alabaina, Tram'bus proiektuak trantsizio ekologikoaren eta, bereziki, dena autoz edo autoari politikentzat alternatiben finantzatzeko diren ingurumeneko Grenelle-tik datozen funts handiak eskuratzen ditu. SMTC-ak (Garraio Publikorako Sindikatu Mixtoak), Biarritzeko egungo auzapez den Michel Veunac-en lehendakaritzapean zenak, alabaina ingurumeneko Grenelle II-ren TCSP (Garraio Publiko kolektiboa bere bide propioan) proiektu deialdiaren kariatara dosier bat aurkeztu zuen.

2011ko otsailaren 9an, beste 77 onartutako proiektuekin batera Estatuak dosierra onartu zuen. Aurkezturiko proiektuaren xedea kontuan ukanik, proiektua hobekienik diruztatua izan zen gainera, 20,04 milioi euroko diru-laguntzarekin (Grenelle II-ren zenbatekotarik Lekuko Garraio Publikoer 590 milioi euro esleitu zitzaian, hots, bana besteko 7,56 milioi proiektu bakoitz).

Bat-batean, orduko Euskal Kostalde–Aturri Hiriguneko presidentea zen Jean Grenet jaunak, Michel Veunac-ekin batera eman prentsaurrekoan, finantziario ezohiko hori, hala zenbatekoagatik nola ingurumenaren Grenelle markaren garrantziagatik, txalotu zuen, eta elurrezko bola efektua izateak espero zuen. "Beste diru laguntzaileak erakartzera ahalbidetzen du", hau da, EGEF, ADEME eta abar. (ik. Sud-Ouest 2011/12/02ko artikulua).

Alta, Garraio Publikorako Sindikatu Mixtoak egin proiektuaren aurkezpen dokumentuak, TCSP ingurumenaren Grenelle-rako eskaintza deialdia errespetatu behar zuenak, zehazten zuen Reine Victoria etorbidearentzat: "ia bakarrik autoari (bazter bakoitzean auto aparkalekuek inguraturiko zirkulazio bidea) zuzendua zaion egungo

eremu hori birbanatu behar da gune bakarreko autobus bide bat irekitzeko. Bidea hiri erdi erdian amaitzen da, Victoria surf erresidentziaren aitzinean, Hôtel du Palais eta Herriko etxetik hurbil" (dokumentuaren 42. orria).

Txosten bereko 57. eta 58. orrietan, argiki adierazia zen autobusentzat bakarrik ziren bide bereziak Biarritzeko erdigunera helduko zirela, Maréchal de Lattre de Tassigny etorbideetik, autobusentzat bakarrik antolatua litaiken bide batekin, eta La Marne Etorbideetik (autobusentzat bakarrik eta mixtoak diren bide zatiekin) eta gero autobusendako bakarrik den bide batetik, Nathalie Erreginaren eta azkenik Victoria Erreginaren Etorbideetarik.

Veunac jaunak autobusendako bide berezien bidezko garraio publikorako proiektu handinahi bat "saldu" du, eta horrekin lortutako dirua baliatu autobus eta txirrindulen zirkulazioa batere laguntzen ez duten bideen berritzeko.

Hots, trantsizio ekologikoari zuzendua zen dirutza bat auto indibidualek osoki baliatzen duten eta «dena autoz» sinbolizatzen duten etorbideen berritzea diruztatzen baliatuak dira Biarritzen. Alta "dena autoz" hori gure hiria, gure osasuna, gure klima eta gure planetarentzat oso kaltegarria da.

Justizia klimatikoa:

Eta Michel Veunac berdina da ausartzen, klimaren arloan, frantses gobernu alfer egotearen gaitzesteko, Macron Lehendakariaren potreta bere Herriko Etxean deslotu duten militante klimatikoen kontra salaketa egitea! Biziren 7 ekintzaile jadanik entzunak izan dira poliziaz.

Frantses Estatuan ANV-COP21 mugimenduko 35 militante klimatiko pasa epaituak izanen dira 9 auzi ezberdinetan ber gertakarietzat, 2019ko maiatzaren eta abenduaren artean. Haietarik 6 epaituak izanen dira Bourg-en-Bresse-en, asteartea, maiatzaren 28tik goiti eta Bizik hemen ekartzen die bere sustengu osoa.

Bizik jada gaitzetsi du Ipar Euskal Herriko ainitz Herriko Etxek erregulariki legea eta bereziki Ingurumen Kodeko L228-2 artikulua urratzen dutela, jakinez artikulua honek beharresten duela "*hirietako bideen obratze edo arraberritzeen kariatara (...) plantan emanak izan ditezen txirrindulentzat bideak, zirkulazioaren hertsaduren eta beharren arabera bide, lurreko marka edo pasabide independente baten egokitzeen bidez*". Kasu horietan ez da sekulan jaukimendurik izan.

Zergatik? Zertan ari dira Prefetak, Prokuradoreak? Alta gertakari horiek argazki baten, izanikan ere lehendakariarena, deslotzea baino askoz larriagoak dira. Alabainan, egoera horrek arriskuan emaiten du kutsadura eta nahasmendu klimatikoaren ez gaizkontzeko txirrindula erabiltzen duten pertsonen bizia bera.

Victoria Erreginaren etorbidearen arraberritzeak L228-2 artikulua urratzen du, nahiz eta Garraio Publikorako Sindikatu Mixtoak BHNS 1 eta 2 autobus bideentzat onura publikoaren ezagutza aurretik egin duen inkesta txostenean, E zatiaren 12.Orrian «Obren ezaugarri nagusiak» atalean 1,5 metroko txirrindula ibilbide bat aipatzen den.

Justizia, noiz kexatuko da berotegi efektuzko gasen isurketen garapenaren arduradunen kontra? Gure jendartearen baitezpadako aldaketa blokatzen dutenen kontra? Trantsizio Ekologikoaren funtsak desbideratzen dituztenen kontra, horren bidez beren

mailan milioika eta orororen buru miliarka jenderen hiltzea ondoriotzat ukanen duen nahasmendu klimatikoaren gaizkontzea eta bizkortzea ahalbidetzen dutelarik?

Izan dadin «dena autoz» politikari alternatiba plantan emaiterearen premia seriotasun gabe hartzen duten herriko etxeen mailan edo bi milioi herritarretik goitik sustengatzen duten « Affaire du Siècle »-ek egin salaketak erakusten duen bezala aldaketa klimatikoaren kontra alfer egoitea akusatua den Estatuaren mailan, Justiziak nahasmendu klimatikoaren aitzinean lekuak husten dituzten erabaki hartzaile politikoak behar ditu auzipetu, eta ez deiadar joleak!

Nazioarteko mobilizazioa klimaren alde, maiatzaren 24 eta 25ean:

Arduradun politiko eta ekonomiko soberak beren ardurak ez dituztenez asumitzen, herritar mobilizazioak inoiz baino gehiago behar du segitu. Nazioarteko 2 egun berriz deituak dira, maiatzaren 24 eta 25ean, ekintza eta manifestaldiak denetan iraganen direlarik. Hemen gaindi:

Ostiralean, maiatzaren 24an

- klimaren aldeko gazteriaren greba
- Baionako Atalante Zineman eztabaida gaualdi bat

Larunbatean, maiatzaren 25ean, 2 klimaren aldeko martxa:

- Donibane Garazin, Herriko Etxearen aitzinean 15:30etan
- Baionan, Auzitegiaren aitzinean, 15:00etan

Ostiralean, maiatzaren 24an klimaren aldeko gazteriaren greba iraganen da, Fridays For Future Euskal Herriko deitua, hitzordua 8 :30etan emana delarik René Cassin Lizeoaren aitzinean, martxaren abiatzearentzat.

Arratsean, 19:00etarik goiti, Baionako Atalante Zineman eztabaida gaualdi bat iraganen da « Grande-Synthe, la ville où tout se joue » filmaren inguruan. Gaualdia, ekologian, bio-aniztasunan, aldaketa klimatikoaren kontrako borrokan, bai eta ere trantsizioaren jarraipen sozial eta solidarioan, eta etorkinen harreraren aitzindari den Grande-Synthe herriko auzapeza den Damien Carème-ekin iraganen da.

Larunbatean, maiatzaren 25ean, 2 martxa iraganen dira:

Donibane Garazin, Klimaren Aldeko martxa, Avenir Garazi Baigorrik, Bizi! Barnekaldek eta Irabiak antolaturik, Herriko Etxean 15:30etan hasiko dena (Txirrindiraultza bat lehenago Ahatsako Herriko Etxetik abiatuko delarik 13:30etan).

Baionan, justizia klimatikoaren aldeko martxa. Abiatzea, 15:00etan, Auzitegitik (Légion Tchèque Etorbidea, 17). Bertan, argazki erraldoi bat egingo izanen da, asteartean, maiatzaren 28an, Bourg-en-Bresse-en epaituak izanen diren 6 klima militanteen sustenguz.

Gero, ibiliko gira «dena errepidetik»ari alternatiba emanen duen egiazko politika baten aldarrikatzeko: Ingurumenaren kodeko L228-2 artikulua errespetua, Tram'bus-aren aurrekontua bakarrik autobusentzat berezituak diren bideen eta bizikletentzat antolaketa finantzatzeko erabilia izan dadin, B.A.B. etorbide osoan bizikletentzat segurtasun neurri guzietan den bidearen galdatzeko, SNCF-aren bidez merkantzien garraioa, hurbileko trenbideen eta gaueko trenen, etab.-en defendatzeko.

Dei garrantzitsu bat, hainbat pertsonalitatek izenpetua irakurria izanen da Ibilaldiaren bukaeran, Paul-Bert Plazan.